

ExxonMobilen eredu klimatikoek zehaztasunez iragartzen zuten klima-aldaketa duela 45 urte

ExxonMobil petrolio-konpainiak 1977tik aurrera garatu zituen eredu klimatikoek zehaztasunez iragartzen zuten berotze globala. Konpainia horren proiektio klimatikoak kuantitatiboki ebaluatu dituzte Harvard Unibertsitateko eta Postdam Institutuko ikertzaileek, eta ondorio horretara iritsi dira.

2015ean kazetariak argitara atera zuten, konpainiaren barne-dokumentuen arabera, jakitun zirela erregai fosilek berotze globala eragin zezaketela, eta horrek ondorio larriak izan zitzaizkeela ingurumenean. Gerora, konpainiaren dokumentuetan oinarritutako ikerketa gehiagok iradoki dute konpainiako zientzialariek garbi jakinarazi zutela klima-aldaketa erreala zela, eta gizakiak eragina zela; eta salatu zuten ezen, informazio hori izan arren, ExxonMobilek klima-aldaketa ukatzen zuten mezuak zabaltzen zituela. Konpainiak, berriz, orain arte ukatu egin du halako informaziorik zuenik.

Orain, *Science* aldizkarian argitaratu duten lan berri batek berretsi egin du aurreko ikerketek erakusten zutena. Kasu honetan konpainiaren dokumentuetako zenbakiak aztertu dituzte. Zehazki, 1977 eta 2003 artean ExxonMobilek egindako proiektioak ebaluatu dituzte, eta ikusi dute proiektio gehienek (% 63-83) zehaztasunez iragarri zutela gerora gertatu dena; eta eredu horiek garai hartan akademiak eta gobernuek zituztenak bezain onak zirela. Hain zuzen ere, beste eredu haiek bezalaxe, ExxonMobilek ere iragarri zuen hamarkadako 0,2 °C igoko zela temperatura.

Gainera, zuzen ibili ziren CO₂-aren eraginez izotz-arro bat etorriko zela baztertzean; ongi iragarri zuten 2000 ± 5 urtetik aurrera detektatu ahal izango zela gizakiak eragindako berotze globala; eta nahiko ongi zenbatetsi zuten zenbat CO₂ isur zitekeen berotzea 2 °C-tik behera mantentzeko. Puntu horietako bakoitzean, ordea, konpainiak egindako adierazpen publikoak kontraesanetan zeuden haren datu zientifikoekin. ●



ExxonMobilen findegi bat, Baton Rougen, Louisianan. ARG.: WClarke/CC-BY-SA 4.0.